

# zumaia

11. zenbakia • 2010eko Urria

# ZU

udalaldizkaria



Zumaiako Udala



SALVAMENTO "15 DE NOVIEMBRE



## Sorosle lanetan Zumaia aitzindari

*Azaroaren 15eko Salbamenduko Batzordearen 50. urteurrenari begira, Iñaki Zorita zumaiarra sorosle taldearen inguruko liburua argitaratzeaz da.*

# aurkibidea

2 Helduen Eskola

3 Inkesta

4 Udala zuzenean / Fototeka

5 Euskara Merkataritzara

6 Motxian

8 Salbamendu Batzordea

11 Alondegia

12 Lokal komertzialak etxebizitza

13 Frontoiaeren proiektua

14 Herritarren batzordeak

15 Kudeatuz

16 Eraikitzen


Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaia Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: Zumaia Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Ale kopurua: 4.500 ale  
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

## udal zerbitzua; Helduen Eskola



Zumaia Helduen Eskolak ere abian du ikasturte berria. Aita Mari zinema aretoaren eraikinean du egoitza Zumaia Helduen Eskolak, eta adinez nagusi diren herritarrei zuzendutako ikasketak eskaintzen dituzte. Aurtengo ikasturtean, Bigarren Hezkuntzako titulua ateratzeko saioak eskainiko dituzte, eta baita Etorkinentzako Hizkuntza Programak ere. Horiez gain, Zarauzko Helduen Eskolan eskainiko dira unibertsitaterako eta goi zikloetarako sarbide frogen prestaketak. Matrikulazioak irailean egin ziren, baina oraindik izena emateko aukera badagoela azaldu dute eskolako arduradunek, betiere, lekua dagoen bitartean. Informazio gehiago jasotzek, ondorengo telefono honetara dei dezakete interesatuek: 943 130013.

*El Centro de Educación para Adultos (EPA) de Zumaia arranca su nuevo plan de cara al curso 2010/2011. Este año ofrecerán clases para obtener el Título de Educación Secundaria, así como el programa de idiomas para extranjeros. A esta oferta se suman también los cursos preparatorios para las pruebas de acceso a la universidad y a ciclos superiores que se impartirán en Zarautz. Para más información, los interesados pueden llamar al siguiente número de teléfono: 943 130013.*

# Zer iruditzen zaizu lokal komertzialak etxebizitza egiteko ordenantza berria?



Margarita Sesma

Oso ondo iruditzen zait ordenantza berri honekin lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko Udalak aurrera atera duen egitasmoa. Guk ere badugu lokal komertzial bat eta interesatuta gaude. Hondartzatik gertu dago lokala eta gustatuko litzaiguke etxebizitza gisa egokitzea, bai seme-alabentzako edota baita geuretzako ere.

*Me parece bien, y además estoy interesada en el tema.*



Juan Mari Granados

Aukera ona dela iruditzen zait lokal komertzialetan etxebizitza egitea ahalbidetzea. Gazteentzako interesgarria izan daiteke ekimen hau baina denontzako baliagarria izango litzatekeela iruditzen zait. Gainera, lokal komertzialak izandako baxuak badaude Zumaian, ez dira asko izango behar-bada, baina batzuk badaude.

*Creo que sería una iniciativa interesante para todos.*



Tere Eizagirre

Etxebizitzak argitasunaren aldetik-eta baldintza onetan egokitzeke aukera baldin badago, ondo iruditzen zait. Gazteentzako aukera ona izan daitekeela uste dut, gaur egun ez daukatelako lan erraza etxebizitza lortzea, eta alde horretatik interesgarria iruditzen zait ekimen hau. Zumaian, gainera, lokal asko dago, kanpoaldean batez ere.

*Creo que puede ser una buena opción para los jóvenes.*



Lurdes Eizagirre

Ondo iruditzen zait lokal komertzialetan etxebizitzak egiteko aukera zabaltzea. Ni alokairu publikoa sustatzearen alde nago, etxebizitzetan edota lokaletan, eta alokairuaren aldeko politikak indartzea komenigarria dela uste dut. Gazteek zaila daukate gaur egun etxe batera sarbidea edukitzea eta honek aukerak zabaldu ditzake.

*Tanto en viviendas como en bajos, yo promovería el alquiler público.*

## udala



**u**ratsez urrats, bizikletak maileguan hartzeko Mugi zerbitzua gero eta harrera hobea izaten ari da herritarren artean. Zerbitzua herritar guztiona den heinean, iritsi da geurea balitz bezala zaintzeko garaia. Izan ere, zerbitzua herritar guztiontzat erabilgarri dagoenez, jasandako triskantzak ere guztiok ordaintzen ditugu. Hori dela eta, erantzukizunez jokatzeko deia egiten die Udalak herritarrei. Denon artean, jarrai dezagun bizikletak MUGIarazten.

**p**aso a paso, el servicio de alquiler de bicicletas Mugi está teniendo una aceptación cada vez más amplia entre los zumaiarras. En la medida en que las bicicletas son de todos, es necesario que empecemos a cuidarlos entre todos, ya que todos pagamos los destrozos que han sufrido las bicicletas. En ese sentido, el Ayuntamiento llama a los y las zumaiarras a que actúen con responsabilidad para que, entre todos, sigamos fomentando el uso de la bicicleta como modo habitual de transporte en el municipio.

## Fototeka



**n**olakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzten Zumaiaiko argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiarrek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) helbidean dago ikusgai.



Goiko argazkian, Zumaiaiko emakumeak ageri dira arrantzarako sareak konpontzen. Zumaiaiko portuan ateratako argazkia da.

*Mujeres arreglando redes en el puerto de Zumaia.*




Jose M<sup>º</sup> Antia Arronak utzitako argazki honetan, Zumaiaiko trainerua agertzen da 1935ean, irabazitako banderarekin. Patroia, Miguel Angel Azkue da.

*En esta foto cedida por Jose M<sup>º</sup> Antia Arrona, aparece la trainera de Zumaia con la bandera ganada. El patrón es Miguel Ángel Azkue.*

## Euskaraz egiteko aukerak biderkatzeko errezeta

*euskaraz txanpon*

- Egun on
- Egun on
- ¿Qué te pongo?
- Tomatea nahi det, bost edo.
- Tomatea? Coge los que quieras. ¿Algo más?
- Bai, sagarrak, dozena erdi bat.
- ¿De cuáles te pongo?
- Gaziak nahiago ditut, biziak.
- Gaziak?
- Si, más bien ácidas.
- Ah, si, gaziak. Pues lleva éstas, te gustarán.



**h**orrelako elkarrizketak ez dira oso ohikoak, ez Zumaian, ezta inguruko herrietan ere. Bezeroa denda batean sartu eta euskaraz eskatu dio dendariari. Dendariak ez du euskaraz hitz egiten baina, ulertu dionez, naturaltasunez jarraitu du elkarrizketa, bezeroari euskaraz jarraitzeko aukera emanez.

Izan ere, euskaldunok maiz gaztelaniara jotzen dugu ondoan daukagunak hala egiten badigu. Gutxi dira, ordea, Zumaian euskara ulertzen ez dutenak, eta horrek, aurreko elkarrizketa-eredua praktikan jartzeko aukera ematen dio euskal hiztunari, euskaraz egiteko aukerak biderkatuz. Horixe da Antton Peñalbak iraileko Baleike aldizkarian (191. zk.) eta [www.baleike.com](http://www.baleike.com) gunean azaltzen duena: “Bi solaskideen arteko ahalegina dago, bakoitzak erosoago sentitzen den hizkuntzan jarduteko. Bakoitzak aintzat hartzen du bestearen nahia eta ahalegintzen dira biak ala biak, bakoitza berean, elkarrizketari bidea ematen...”.

Elkarrizketan parte hartzen dutenak lasai eta eroso sentitzean dago gakoa. Ez da

kontu erraza, oso barneratuta baitago ez dela “errespetuzkoa” gaztelaniaraz egiten duen bati euskaraz erantzutea. Anttonen dioen bezala, “Hori da benetako elebitasuna: besteari nahi duen hizkuntzan egiteko aukera ematea, edo ahaleginak egitea, behintzat; eta ez denok hizkuntza indartsuan egin behar izatea”.

**“Bakoitzak erosoago sentitzen den hizkuntzan jarduteko ahalegina dago”.**

Udaleko Euskara Zerbitzuak euskararen presentzia biderkatzeko lanean goiko hausnarketa eta beste hainbat gomendio bildu ditu “Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko errezeta erraza” agirian. Urriar banatuko zaie merkatariei eta bertan bakoitzak duen euskara mailaren araberako gomendioak jasoko dituzte, euskara erabiltzeko aukera gehiago izan ditzaten eta bezeroei emandako zerbitzua gertukoagoa izan dadin.


Herriko merkataritzan euskara bultzatzeko jarduera bat baino gehiago eraman ditu aurrera Euskara Zerbitzuak

(inkestak, jakien kartelak...), eta urtea amaitu baino lehen beste ekimen batzuk ere gauzatzeko asmoa du.

**U**na conversación en la que el cliente pide en euskera y el comerciante responde en castellano no es muy habitual en Zumaia, pues el cliente tiene de a hablar en castellano en esas situaciones. Pero sí que es factible, y con ello se ampliarían las oportunidades para hablar en euskera.

Es una propuesta que el Servicio de Euskera ha hecho suyo y ha recopilado, junto con otros consejos, en un documento que los comerciantes recibirán en octubre. Redactados como una receta, estos consejos les ayudarán a incrementar el uso del euskera en todo tipo de situaciones, partiendo del nivel que tiene cada uno. Así mismo, ayudará a los comerciantes a mejorar su servicio y acercarse más a la clientela.

## Ardantzabidea eta Alde Zaharra elkartuta



Alde Zaharreko bizilagunek beren auzora igo ahal izateko igogailu berria erabilgarri daukate uztailaren bukaeratik. Jadarreko igogailuaren antzera, erabilera publikoa izango du Ardantzabideko igogailuak ere, eta egunean zehar edozeinek erabili ahal izango du, 06:00etatik 24:00etara bitartean. Igogailuarekin batera, Intxaurtxoetako eskailerak ere eraberritu egin ditu Udalak, eta erabilgarri daude dagoeneko.

Zumaiaiko Udalak, igogailu eta eskailera horien bidez, Ardantzabideko aparkalekuaren erabilgarritasuna hobetu nahi du. Eta horrela, Alde Zaharrean ibiltzen diren ibilgailuen kopurua gutxitzea lortu.

*A finales de julio se puso en funcionamiento el ascensor que une el barrio Ardantzabide con el Casco Viejo. Según se informa desde el departamento de Urbanismo, el ascensor es de uso público durante el día, en horario de 06:00 a 24:00 horas. Junto con el ascensor, el Consistorio también ha reformado las escaleras de Intxaurtxoeta.*

*“Desde el Ayuntamiento animamos a todos los ciudadanos a utilizar estas conexiones, evitando de esta manera el tránsito de los vehículos de motor en el Casco Viejo.”*

## Geoparkeko hautagaitzaren azkeneko urratsak



Geoparkeko ebaluatzaileak Zumaiaara egindako bisitan.

Zumaia-Deba-Mutriku Europako Geoparkeen Sarean sartzeko hautagaitza aurrera doa eta bide horretan, azkeneko urratsak egiten ari dira bai hemengo eta bai kanpoko ordezkariak. Hala, uda partean Zumaian izan ziren Europako Geoparkeen Sareko bi ebaluatzaile, hiru herriek elkarrekin aurkeztutako hautagaitza aztertzen. Alemaniako Jutta Weber eta Erresuma Batuko Tony Ramsay doktoreek “interes handia” erakutsi zuten kultura ondarearen elementu nagusiak ezagutzeko: alderdi etnografikoak, tradizioak, gastronomia, folklorea... Horrekin batera, lurraldearen geologia balio nagusiak eta, orokorrean, natura ondare paregabea erakutsi zitzaizkien. Orain, erantzunaren zain daude hiru udalak, eta txostena bukatzeaz izango dira honezkero ebaluatzaileak. Urri aldera azken erabakia hartzeko batzarra egitekotan dira, eta baliteke urrian bertan jakitea Zumaia-Deba-Mutriku hautagaitzak izendapena eskuratu duen.

*Los municipios de Zumaia, Deba y Mutriku, que conforman el territorio propuesto para su adhesión a la Red Europea de Geoparques están inmersos en su fase final de la candidatura. A finales de julio, recibieron la visita de dos evaluadores de la Red Europea de Geoparques, y tanto la doctora Jutta Weber como el doctor Tony Ramsay se mostraron muy interesados en conocer los principales elementos del patrimonio cultural: aspectos etnográficos, tradiciones, gastronomía, folklore... Los tres ayuntamientos esperan ahora la respuesta final a la candidatura, y es muy probable que la resolución llegue este mismo mes de octubre.*

## Mugi guztiona delako



Mugiko bizikleta hautsita joan den hilean.

Abuztuan jarri zen abian Mugiren zerbitzu berritua, eta iazko abuztuko datuekin alderatuta hirukoiztu egin da mailegu kopurua. Abuztutik hona, gainera, 250 erabiltzaile berrik izena eman dute. “Herria bere egiten ari da zerbitzua eta berea izango balitz bezala zaintzen hasi beharra dago” dio Andoni Etxaniz zinegotziak. Izan ere, Udala “kezkatuta” agertu da azken hilabeteetan zerbitzuak jasan dituen triskantzekin; gurpilak zulatuta, oterra eta txirrinak puskatuta... Horrek “zerbitzuaren kalitatean” eragin zuzena duela eta egoera konpondu ezean “zerbitzuaren biziraupena” kolokan dagoela azaldu zuen Andoni Etxaniz zinegotziak. Dena den, Udalak mugikortasun jasagarri bateranzko bidea egiten jarraitu nahi duela ere gaineratu zuen eta aurki “zerbitzua indartzeko” mugikortasun arazoak dituztenentzat trizikloak jarriko dituztela azaldu zuen.

*Estos últimos meses el incremento de usuarios registrados en el servicio Mugi ha aumentado con 250 nuevos usuarios y las prestaciones ofrecidas por el servicio han sido significativas. Aún así, el Ayuntamiento está preocupado por los cuantiosos destrozos que ha sufrido el servicio: rotura de timbres y cestas, pinchazos...” Parece que las bicicletas no son de nadie, pero ya es hora de que empecemos a cuidarlos bien, puesto que las bicicletas son de todos, especialmente de los usuarios”, comentaba el concejal de Medioambiente Andoni Etxaniz.*

## 25 urte soinean eta sasoi betean




Urteurrena ospatzeko ekitaldietan (Aitor Leiza).

‘Zumai Txarangak’ 25 urte bete berri ditu eta hori ospatzeko ugariak izan dira egin dituzten ekitaldiak. Iraileko azkeneko asteburuan, esaterako, goizean goizetik hasi eta iluntzera arte aritu ziren herriko kaleak alaitu eta merezimenduzko sariak eskaintzen. Antonio Tapia, txarangaren sortzaileetakoa, eta Jerónimo Egaña musika eskolako irakasleak omendu zituzten, besteak beste. Horiekin batera, opariak banatu zizkieten Itxas Gain txarangako kideei, Miranda de Ebroko txarangako lagunei eta Udalari. Udalak eskerrak eman nahi dizkie 25 urtez herriko kaleak alaitzen aritu diren guztiei, eta jarrai dezatela urteak betetzen.

*Fueron muchos los zumaiarras que participaron en los actos de celebración del 25 aniversario de la fundación de la Txaranga Zumai. El 26 de septiembre se llevaron a cabo los actos y exposiciones con motivo al aniversario e incluso quisieron homenajear a varias personas que ha protagonizado un papel importante dentro de la banda. Entre otros, los homenajeados fueron Antonio Tapia, uno de los fundadores de la banda, y Jerónimo Egaña, profesor de la Musika Eskola. Junto a ello, también quisieron agradecer la labor de la txaranga Itxas Gain, el afecto de la txaranga de Miranda de Ebro, y el apoyo del Ayuntamiento de Zumai. El Consistorio felicita a la txaranga Zumai por su 25 aniversario y que cumplan muchos más.*

## Azaroaren 15eko Salbamendurako Batzordea



50. urteurrenari begira, Iñaki Zorita zumaiarrak sorosle taldearen inguruko dokumentazioa bildu du bere liburuan.

*El zumaiarra Iñaki Zorita publica un libro con motivo del 50 aniversario de aquel grupo de salvamento tan pionero.*

◀ Argazkia, Arantxa Aizpurua eta Gracian Galarragak utzitakoa da.

**Z**umaiako historian jaso den pasarte latzenetarikoa gertatu zen 1960. urteko azaroaren 15ean. Egun hartan, itsasoa haserre zegoen eta inork ahaztuko ez duen gertakari lazgarri bat jazo zen Zumaiako barra inguruan. Begoña itsasontziaren itsasoratzea ikusteko asmotan hainbat gaztetxo gerturatu ziren portuko barrara

eta ustekabeen olatu bortitz batek harrapatu zituen. Batzuk barrako hormaren kontra jarrita salbatu baziren ere, zazpi gaztetxo olatuak eraman zituen berekin. Egoera ikusita, zenbait herritarrek uretara salto egin zuten gaztetxoak salbatzeko asmoz, eta horien artean, Rudi Holke zumaiar kirolariak gaztetxoetako bat salbatzea lortu zuen.

Gertaera haien ondorioz sortu zuen herritar talde batek Azaroaren 15eko Salbamendu Batzordea izenez ezaguna egin zen sorospen taldea. 50 urte geroago, batzorde horren historia eta egindako lana jasotzen duen liburua argitaratzear da Iñaki Zorita zumaiarra.

**e**l 15 de noviembre del año 1960, se escribió una de las páginas más trágicas de la historia de Zumaia. A primera hora de la tarde, un grupo de jóvenes se acercó a la barra para presenciar la salida al mar del barco Begoña. El mar estaba bravío y una inmensa ola arrasó la barra con toda su furia, cogiendo desprevenidos a los muchachos. Aunque algunos consiguieron librarse de aquella garra, no todos tuvieron la misma suerte y siete de aquellos adolescentes

fueron arrojados al mar. Viendo la situación, algunos zumaiarras saltaron al agua para intentar salvar a los jóvenes, y uno de ellos, el deportista zumaiarra Rudi Holke, consiguió salvar a uno. Tras aquella tragedia, un grupo de zumaiarras creó la Junta de Salvamento 15 de noviembre, la cual realizó una labor encomiable en nuestras playas.

Este año se cumple el 50 aniversario de aquel aciago suceso, así como de las primeras reuniones de la Junta

de Salvamento. Como homenaje a toda esa labor de voluntariado, el zumaiarra Iñaki Zorita ha redactado un libro sobre la Junta de Salvamento 15 de noviembre que verá la luz dentro de los actos conmemorativos previstos para este mes de noviembre. Según comenta el autor del libro, ha sido una labor que le ha "llenado muchísimo" y que quiere "presentar como homenaje" a todas las personas que han trabajado en la Junta "que ha sido tan pionera, incluso en todo el Estado español".

# Iñaki Zorita:

## “Asko bete nauen lana izan da”



**I**kertzailea edota idazlea ez izanagatik ere, Iñaki Zoritak garai hartako gertakariari nahiz Salbamenduko Junta haren inguruan egin duen dokumentazio lana ez da makala. Zumaia osoa hunkitu zuen gertakari lazgarri haren 50. urteurrenekin batera aurkeztuko du, 1960ko azaroaren 15 haren ondotik sortu zen Salbamenduko Juntari buruzko liburua.

Gaur egunean suhiltzaile lanetan aritzen bada ere, sorosle lanetan ibilia da Zorita urte luzez. Ibilbide horrek piztu zion zumaiarrari herrian hain garrantzitsua izan zen erreskate talde honen historia ikertzen hasteko grina, eta lan horren emaitza izan dira artxibo zaharretan bilatutako aktak, hemerroteketako idazkiak edota herriko sei gaztetxoren heriotza eragin zuen gertakari beltz haren inguruko testigantzak. Horiek guztiak bildu ditu Zoritak bere liburuan eta Udalaren laguntzaz kaleratuko da azaroan.

Zoritaren esanetan, “harrigarria izan zen 1960. urteaz geroztik herritar talde batek erreskateen arloan egin zuen lana, eta dokumentazio lan hau horiei egindako omenaldi gisa aurkeztu nahiko nuke”. Aurkitutako dokumentuen arabera, 1961ean sortu zen ofizialki Azaroaren 15eko Salbamendurako Junta, baina 1960an bertan egin zituzten elkarteak sortu aurretiko lehendabiziko bilerak. Dokumentu horietan oinarrituz, Zumaiakoa Estatu Espainiarrean

lehendabiziko erreskate taldea izan zela dio Zoritak. “Hipotesi hori ezeztatzen duen beste dokumenturen bat agertzen ez den bitartean, badakigu Zumaiaiko erreskate taldea 1960. urtean bertan elkartu zela aurrenekoz, eta Espainiako Salbamendu eta Sorosleen Federazioa, berriz, 1961ean sortu zen”.


**“Harrigarria izan zen 1960. urteaz geroztik herritar talde batek erreskateen arloan egin zuen lana”.**

Liburuaren egileak azaldu duenez, hasierako momentutik “oso garbi zuten” zein zen egin behar zuten lana. “Badago idatzi bat 1962an Juntako kideek Ameriketako Enbaxadoreari zuzendu zieten. Arnasketan laguntzeko aparatu berritzaile baten inguruko informazioa eskatu zieten, eta amerikarrek erantzun zieten aparatua lortzeko informazioa emanaz. Hainbat ahalegin eta gero, aparatua lortu zituzten eta gauegunean ere erabiltzen dira horrelako tresnak sorosle lanetan”. Urte horretan bertan jarri zituzten Zumaiaiko hondartzetan banderen esanahiak azaltzen zituzten kartelak Zoritak aipatu duenez: “Bost hizkuntzetan jarri zituzten kartelak; euskaraz -garai hartan debekatuta zegoen arren-, gazteleraz, frantsesez, ingelesez eta alemanez”. Horien antzera, lan handia egin zuen Zumaiaiko taldeak txalupak edota erreskateetarako hainbat aparailu lortzeko.

1960ko azaroaren 15eko gertakari ilun haien testigantzak ere jaso ditu Zoritak bere liburuan, eta Javier Carballok egin ditu hil ziren sei gaztetxoen biografia txikiak. Lan horretan, lehen mailako iturria izan du alboan liburuaren egileak: bere ama. “Neure ama ere Begoña ontziaren itsasoratzea ikustera joana zen parolmuturrera. Jende ugari zegoen han. Olatu bortitz baten ondorioz, zazpi gaztetxo itsasoak eramane zituen, eta Rudi Holke kirolari zumaiarrak, horietako bat salbatzea lortu zuen. Zumaian izan diren hainbat salbatzailearen antzera -horien artean Aita Mari bera-, handia izan zen Rudi Holkek une haietan egin zuena”. Zoritak berak Holkerekin elkartzeko abagunea izan du behin baino gehiagotan, eta aipatu duenez, 79 urte dauzka eta sasoi betean dago.

Liburua azaroan aurkeztuko duen arren, oraindik ikertzen jarraitzeko asmoa daukala aitortu du Zoritak. “Hala eta guztiz, material guztia ez dut etxean gorde nahi. Dokumentazioa erabilgarri egon dadin gustatuko litzaidake. Dokumentu guztiak digitalizatu eta herritarrentzako erabilgarri jartzea izango litzateke egokiena. Guztiontzako da aberastasuna talde honek herrian egin zuen lana ezagutzea. Horri lotuta, jende askoren laguntza jaso dut informazio guztia biltzerako garaian eta guztiei eskerrak eman nahi dizkiet”.

Salbamenduko Batzordeko sorosleak  
Javier Carballo ateratako argazkian.



## Oroitzapenak mosaikoan gordeta

Rakel Nacenta mosaikoa  
zaharberritzen



**S**ei gazte haien omenez, urte hartan bertan mosaiko bat jarri zuten istripuaren lekuan. Vicente Revilla artistak egin zuen mosaikoa, baina, 50 urteren ondoren, artelana hondatuta geratu da. Rakel Nacentak zaharberrituko du, eta berriro barran jarriko dute oroimenaren harribitxia.

“10 hilabete inguru kalkulatu ditugu, baina oso zaila da horrelako lan batean epeen aurreikuspenak egitea. Ez dakigu zer topatuko dugun, baina aitortu behar dut hasierako inpresioa nahikoa ona dela”, dio Nacentak. Izan ere, mosaikoa kentzeko orduan mila puskatan egingo

zen beldur bazen ere, puska handietan atera dute, eta gustura dago alde horretatik.

Zaharberritze lanetan aritzen den arren, harri eta marmolarekin lan egiten duen aurreneko aldia da. Hala eta guztiz, inguruko lagunengandik ez zaiola falta gaineratu du, eta ez dela abiatzen zerotik, unibertsitateko ikasketetan mosaiko honen zaharberritzearen inguruko proiektua garatu baitzuen. “Ikasketa amaierako proiektua mosaiko honi buruz egin genuen, eta orduetik buruan izan dut beti. Azkenean, duela bi urte egin ziguten proposamena

Udaletik, eta aurrekontuetan diru izendapena sartu dutenez, lana aurrera ateratzeko modua izango gara”.

Atzeko partea konpontzen ari da momentu hauetan, artelanaren euskarri nagusia izango delako. Ondoren, aurreko parteko oxidazioak eta itsasoko urak eragindako hondarrak garbituko ditu. Marmolezko xaflak ebakiko ditu gero, tesela bihurtzeko, eta horiek behar bezala kokatzea izango da hurrengo lana. Azkenean, material bigungarria jarriko dio artelanari babesteko eta, gutzia bukatu ostean, mosaikoa bere jatorrizko eremura itzuliko dute.

**C**omo homenaje a esos seis jóvenes que padecieron en aquel accidente, se colocó un mosaico en la antigua barra de Zumaia. Pero estos cincuenta años no han pasado en vano y el mar y algún que otro percance han deteriorado la obra. Ahora, la

restauradora Rakel Nacenta está reformando la placa, “muy especial” para ella. De hecho, el proyecto de restauración del mosaico fue su trabajo de fin de carrera, y según comenta, “desde siempre ha tenido ganas de trabajar en ella”. Calcula que podría

terminar el trabajo en unos diez meses, “pero en este tipo de trabajos no es fácil cumplir las previsiones, ya que no sabemos con qué nos encontraremos”. Nacenta cuenta con un buen equipo de amigos que la están guiando en todo el proceso de restauración.



## Kultur Etxe berria prestatzen

**Z**umaiako Alondegia eraberritzeko lanen baitan, dagoeneko obra zibila bukatuta dagoela jakinarazi dute Udaleko ordezkariak. Bertan kokatuko da Zumaiako kultur etxe berria eta baita udal liburutegia ere. Dena ondo bidean, 2011 hasierarako eraikina herritarrentzako erabilgarri izatea aurreikusten du Udalak.



**12** hilabete iraun dute Alondegia eraberritzeko lanek eta Udalak 2.176.739 euroko aurrekontua erabili du lanak aurrera eramanez. Datozen asteetan eraikina hornitzeko prozedura abian jarriko da eta behin eraikin guztia prest dagoenean herritarrentzako erabilgarri jarriko da. 1.268 metro karratu erabilgarri dauzka Alondegia zaharberriak eta lau solairu ditu orotara. Beheko solairuan erakusketa areto zabal bat egokitu da, bigarren solairuan egongo dira kultur bulegoak, eta hiru eta laugarren solairuak udal liburutegiak hartuko ditu.

**U**na vez concluida la obra civil, en los siguientes meses se ultimarán los procedimientos para abastecer la renovada Alhóndiga municipal que albergará tanto la nueva casa de cultura como la biblioteca municipal. El inmueble cuenta con un espacio utilizable de más de 1.268 metros cuadrados y los responsables municipales prevén su apertura, "si todo marcha bien", para comienzos del año 2011.

## Eusebio Gurrutxagako garajeen kontzesioa

**J**akina denez, Zumaia Udalak Eusebio Gurrutxaga plazan garajeak egiteko asmoa du. Baina gaur egun pairatzen ari garen krisia dela-eta, horrelako proiektu batean sartu aurretik Zumaian garajeen eskaria zenbaterainokoa den jakin nahi du. Guztira 277 aparkaleku izango dira, 50 urterako kontzesioan hartzeko. Bakoitzak 21.000€ (+BEZ) euroko prezioa izango du, eta kontzesioa eskuratu nahi duenak urriaren 15era arteko epea du. Izen ematearekin batera, kontzesioa eskuratzeko asmoa benetakoa dela adierazteko, 300

euroko aurrerapena ordaindu behar da, Kutxako 2101 0381 02 0010225704 kontu zenbakian eginez diru sarrera, interesdunaren izenean. Ordoren, ordainketaren ziurtagiria izen emate orriarekin batera Zumaia Lantzeneko bulegoan entregatu beharko da. Izen-emateko orriak Zumaia Lantzenek Udaletxean duen bulegoan, edo [www.zumaia.net](http://www.zumaia.net) helbidean aurki daitezke.

Behin izena emateko epea bukatu eta Udalak eskatzaile kopurua ezagutzen duenean, azterketa ekonomikoa egingo du saldu ez diren aparkalekuak

bideragarri egiteko sistematik ba ote den jakiteko. Dena aztertu ondoren, aparkalekuak bideragarritasunik ez duela ondorioztatzen bada, interesatuei alde zuzena aurretik ordaindutako 300 euroak itzuliko zaizkie.

Informazio gehiagorako Zumaia Lantzenek Zumaia udaletxean duen bulegora jo dezakete herritarrek. 943 143415 telefono zenbakian edo [zumaialantzen@zumaia.net](mailto:zumaialantzen@zumaia.net) posta elektronikoa bidez ere eska daitezke garajearen inguruko argibideak.

**e**l Ayuntamiento de Zumaia, mediante la sociedad pública Zumaia Lantzen, tiene en proyecto construir un aparcamiento subterráneo en la plaza Eusebio Gurrutxaga. Pero, consciente de la crisis económica actual y antes de llevar a cabo un proyecto de esta envergadura, el Ayuntamiento desea saber cuál es la demanda real de los garajes.

Para ello, Zumaia Lantzen ha abierto un plazo para que las personas interesadas puedan realizar sus solicitudes. El aparcamiento contará con un total de 277 plazas de garaje. Cada plaza costará 21.000 euros (+ IVA), y el plazo de inscripción terminará el 15 de octubre. A la hora de hacer la inscripción, los interesados tendrán que abonar un

adelanto de 300 euros. Las hojas de inscripción están disponibles en la misma oficina de Zumaia Lantzen, o, también, en la página [www.zumaia.net](http://www.zumaia.net). Para más información, pueden llamar al teléfono 943 14 34 15, escribir a la dirección [zumaialantzen@zumaia.net](mailto:zumaialantzen@zumaia.net) o acudir a la oficina que Zumaia Lantzen tiene en el Ayuntamiento.

## Lokal komertzialetan etxebizitzak egiteko ordenantza berria du Udalak

**h**erriko hainbat lokal komertzial eta solairuarte etxebizitza bihurtzeko ordenantza onartu berri du Zumaia Udalak, eta jende aurrean ikusgai egon da bi hilabeteetan.

Ordenantza horren bidez herrian erabilera komertzialik ez duten lokalei beste erabilera bat ematea ahalbidetu nahi da. "Gure helburua, eraikita dauden eraikuntzen erabilera optimizatzea da; lur gehiago urbanizatzen hasi aurretik, beste aukera batzuk landu nahi ditugu", azaldu du Andoni Etxaniz Hirigintza Zinegotziak.

Etxeak, zein lokal komertzialetan egin daitezkeen zehaztuta du Udalak dagoeneko. Hala ere, gero ikusi egin behar da lokal horiek baldintza guztiak betetzen dituzten edo ez. Ezingo baita edozein lokal komertzial etxe bihurtu. Gutxienez, orain dela 10 urte eraikitakoa izan beharko du, eta azken 5 urteotan erabilera komertzialik ez du izan beharko, besteak beste.

"Lokal horiek etxe bihurtzean, ez dira etxe libreak izango, udal babesekoak baizik. Neurri horren bidez, lokal komertzialen inguruan espekulazioa sortzea ekidin nahi da", azaldu du Etxanizek.

**e**l Ayuntamiento aprobó a finales de julio la ordenanza que permitirá la reconversión en viviendas de bajos y locales comerciales de algunas zonas del municipio. Mediante esta nueva ordenanza el Consistorio quiere darle una segunda vida a los bajos que actualmente no cuentan con ninguna actividad comercial. Esta ordenanza recoge una serie de condiciones para que los locales puedan ser habitados

## Frontoia eraikitzeko proiektua aurrera doa



**Z**umaiak beharrezkoa duen frontoia 2011. urte hasieran eraikitzen hastea espero du Udalak.

Zumaiak badu frontoia egiteko aurreproiektua, dagoeneko frontoia erabiltzaileek ere badute proiektu honen berri, “eta proiektua gustatu zaie”, azaldu du Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotziak. Puntanoetan egingo da frontoia, eta bertako lanak Udalak Ardantzabiden duen lur sailari lotuta daude. Lur saila eskuratzen duenak frontoia egiten hasi beharko du lehenengo, frontoia obrak hasi ondoren emango baitu Udalak ondoko etxebizitzak egiten hasteko lizentzia. Horrela, lehen gertatutakoa ekidin nahi da: “Frontoia egiten hasita egon beharko dute etxebizitzak eraikitzeko baimena jasotzeko, eta frontoia bukatutakoan emango zaie

etxeei erabilera baimena”, argitu du Etxanizek. Udalak aurreikusten duenaren arabera, frontoia eraikitzeko 14-16 hilabete behar dira.

Gauzak ondo bidean, urte bukaerarako merkatuan jarriko da Udalak Ardantzabiden duen lur saila, eta frontoia egiteko obrak 2011. urtean hasiko direla aurreikusten da. Izan ere, eraikuntza enpresa batzuek lur horretan interesa dutela azaldu diote Udalari. Lur hori eskuratzen duenak, ordainetan, frontoia eraiki beharko du.

Frontoi berriak 3,2 milioi euroko aurrekontua izango du, eta Ardantzabideko lur sailarekin ordainduko dute. Lur eremu horretan, Udalak babes ofizialeko eta tasatutako etxebizitzak egingo ditu, lehen libreak egingo ziren lekuan.

### Proiektuaren aldaketak

Frontoia proiektuak aldaketak izan ditu. Lehen helburua 980 ikuslerentzako frontoia egitea bazen, gaur egungo proiektuaren arabera, 700 lagunentzako frontoia izango da. Beraz, lehen Euskal Herriko bigarren frontoirik handiena egitea pentsatzen bazen ere, ez da horrela izango: “Zumaiaren premien arabera frontoia egin nahi dugu”, dio Etxanizek. Frontoia tamaina aldatu da, baina kokapena aldatzea ere aztertzen ari dira. Frontoia Brankako eraikinaren eta Otezuriko egoitzaren artean egitea aurreikusten zen aurreko proiektuan, frontisa hegoaldean duela. Proiektu berrian, aldiz, Herri Eskolaren parean egitea da asmoa, frontisa iparraldean duela. “Horrela, frontoia ezker horma Herri Eskolaren muga izango da, eta etorkizunean erabileraren bat eman ahal izango zaio”, azaldu du Hirigintza zinegotziak.

**Z**umaia ya tiene redactado el anteproyecto del nuevo frontón que se construirá en Puntaoneta. El pleno procedió a su aprobación a finales de julio, y los usuarios del frontón ya tienen información sobre el proyecto. Además, según ha señalado el concejal de Urbanismo Andoni Etxaniz, “a los usuarios les ha gustado nuestra nueva propuesta”.

Las obras para la construcción del frontón están estrechamente ligadas

a la parcela que el Ayuntamiento tiene en Ardantzabide. Así, el promotor que se haga con ese terreno tendrá que construir el nuevo frontón. “Será necesario haber empezado a construir el frontón para que se dé la licencia para construir las viviendas. Y para obtener el permiso de habitabilidad, el frontón tendrá que estar terminado”, explica Etxaniz.

Si los trámites avanzan según lo previsto, el Ayuntamiento pondrá en

el mercado la parcela que tiene en Ardantzabide hacia finales de año, y a principios del 2011 empezarán a construir el nuevo frontón. Además, tal y como señala el responsable de Urbanismo, algunas empresas constructoras ya han comunicado al Consistorio el interés por esa parcela. Según los cálculos del Ayuntamiento, se necesitarán 14 meses para construir el nuevo frontón. Tendrá un presupuesto de 3,2 millones de euros, que se costearán con la parcela de Ardantzabide.

## Zaborraren kudeaketa herritarren ahotan

“Zumaiaiko hondakinen %28 biltzen da gaika. Gainontzeko hondakinen %72 bereizi gabeko hondakinen edukiontzira botatzen da. Ondorioz, hondakinen %72 Zarauzko zabortegira doa zuzenean”. Horixe izan zen irailaren 11n ospatuz den Hondakinen Batzorde Herritarrean aztertu zuten datuetako bat. Orduan egin zuten batzorde herritarren bigarren saioa, eta Zumaiaiko hondakinen egoera aztertu zuten Elhuyar Aholkularitzako teknikarien eskutik.

Zumaiaiko hondakinen egoerari buruzko azterketa egiteko, Novotec enpresak 2009an egin zuen azterketa erabili zuten oinarri gisa, eta hobetu beharreko hainbat aspektu zehaztu zituzten bileran bildu zirenek: edukiontzi horiaren sistemara bota beharrekoa argiago azaltzea, murrizketa-kanpainak bultzatzea, edota gaikako bilketaren emaitzak hobetzea, besteak beste.

Gaita	Gaika biltzen da	Nahasita biltzen da
Patina eta kurbeta	%56,6	%43,4
Beka	%77,9	%22,1
Datu zuzenak	%20,4	%79,6
Bilaketa egokia	%8,2	%91,8

Ikusitakoaren arabera, ondorengoak dira Zumaian gaika biltzen diren hondakin nagusien datuak, laburbilduz:

Bileran ateratako ondorioen arabera, zenbakiak adierazten dute “ez dela lortu hondakinak sortzeko joera geldiaraztea” baina “gero eta gehiago” bereizten dituztela hondakinak Zumaiaiko herritarrek. Hala ere, oraindik gaikako bilketa hobetzeko “aukera handia” dagoela aipatu dute. Ondorioen artean jasota daude baita ere, borondatezko sistemak emaitza kaskarrak ematen dituela, edota gaztelerazko 3 R-ak (murriztu, berrerabili eta birziklatu) ez datozela bat errauskailuarekin.

Joan den asteburuan berriro bildu zen Hondakinen Batzorde Herritarra, eta azkeneko horretan, zaborrak murrizteko proposamen desberdinak landu zituzten. Hurrengo asteetan berriro elkartuko dira herritarrak batzordean eta hondakinen kudeaketarekin zuzenean lotura duten hainbat gai landuko dituzte; atez ateko zabor bilketa sistema, edota erraustegiaren sistema, besteak beste.

**“Zumaiaiko hondakinen %72 bereizi gabeko edukiontzira botatzen da.**

Prozesuak irekita jarraitzen du eta hurrengo asteetan egingo diren bileretan parte hartzeko interesa dutenek aurrez Udalean jakinaraztea komeni da. Horretarako, idatzi ingururugiro@zumaiaokudala.net helbidera edo deitu 943865033 telefonora (Aitor Ibarguengoitia, Ingurumeneko teknikaria).

“La recogida selectiva de residuos alcanza el 28% en Zumaia, y el resto, el 72%, es depositado en los contenedores sin haber sido antes separado. En consecuencia, el 72% de los residuos va directamente al vertedero de Zarautz”. Son los datos que analizaron en la segunda reunión de la

Comisión Ciudadana sobre los Residuos que tuvo lugar el pasado 11 de septiembre en Branka. Después de analizar los datos sobre la gestión de residuos de la localidad, los participantes de la comisión identificaron ciertos aspectos a mejorar. El pasado fin de semana la comisión se reunió por tercera vez y

en esta ocasión, analizaron diferentes propuestas relacionados a la reducción de los residuos. En próximas citas la comisión seguirá debatiendo temas relacionados con la gestión de residuos, y aquellas personas interesadas en participar podrán acudir al departamento de Medioambiente del Ayuntamiento.

## 2010eko aurrekontuak aberastuz



Zumaiaiko Udalak, hirugarrenez, herritarren parte-hartzean oinarrituta garatu nahi ditu

datozen urterako aurrekontuak. Herritarrek herriaren kudeaketa eta garapenean zeresan handia dutelako, eta iritzi, proposamen edota ekarpen desberdinak jaso asmoz, parte-hartzean oinarritutako prozesua abian jarriko da urrian bertan. Urriaren 14an, ostegunean egingo da herritarrekin bilera zabala eta Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu herriko aurrekontu orokorretarako proposamenak egitera.

**U**n año más, el Ayuntamiento de Zumaia va a poner en marcha el proceso para que los presupuestos del año que viene se trabajen de modo participativo. El 14 de octubre se llevará a cabo la primera reunión a la que el Ayuntamiento invita a todos los ciudadanos a que participen de esta manera en la gestión municipal.

# Kulturgintzaren antolamenduan parte hartuz

**Z**umaiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, herritarren partaidetza bultzatzeko programa berri bat abian jarriko du urrian bertan. Kudeatuz programaren baitan, Zumaiako Udalak 'Kultura Zumaian 2020an' prozesu parte-hartzailea bultzatu nahi du. Prospektiker enpresako teknikaria da Olatz Errazkin, eta Zumaian aurrera eramango duten egitasmoaren nondik norakoak azaldu dizkigu.



## Zer esan nahi du Kudeatuz programak?

2007-2011 Kudeaketa Planean jasota dagoenaren ildotik, Gipuzkoako Foru Aldundia herritarren parte hartzearen aldeko apustua egiten ari da. Apustu horren baitan, hainbat lan ildo jarri dira abian, eta horietako bat Kudeatuz Programa izan da. Horrela, Kudeatuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta EUDELen arteko lankidetzeta programa bat da, bi helburu dituena: alde batetik, herrietako gobernu sistemak hobetzeaz hausnarketa egitea; eta beste aldetik, Gipuzkoako herrietan herritarren parte hartze prozesuak bultzatzea. Parte-hartze prozesuak sustatzeko arrazoia herritarrek politika publikoetan parte hartzeri eta inplikatzera bultzatzea da. Aurtengoa Kudeatuz Programaren 3. edizioa da, eta Gipuzkoako beste 9 udalerrirekin batera, Zumaiak parte hartuko du programa horretan.

## Zumaian, zein izango da zuen egitekoa?

Parte-hartze prozesuaren helburua udalerrian eta kulturaren alorreko eragileen artean hausnarketa bat aurrera eramatea da. Horrela, Zumaiako errealitate kulturala nola bizi den aztertzeaz gainera, 2020. urtean Zumaiako Kultura alorra nolakoa nahi genukeen marraztea eta horretarako zein lan ildo jarri behar diren abian eztabaidatzea hartu ditugu oinarritzat. Helburu hauek betetzera iristeko, gure egiteko nagusia parte-hartze prozesuari forma ematea izango

da, izan ere, edukiak herritarrek eta eragileek planteatuko dituzte. Honela, lehenengo pausoa kulturaren alorreko eragileen artean inkesta bat egitea izango da, parte-hartze bilerekin begira oinarriak eta edukiak finkatzeko. Behin inkesta horren ondorioak eskuetan ditugula, hausnarketa egiteko bilera konkretuetarako deia egingo da.

## Hainbat forotan herritarren ahotik atera izan da herriko kulturaren plana egitearen beharra. Proiektu honek behar horri erantzuterik izango al du?

Kultura Zumaian 2020an' prozesua parte-hartze prozesuaren bidez eta 2020ra begira diseinatu dela kontuan hartuta, Zumaian kultura alorra nolakoa nahiko genukeen aztertu eta horren inguruan hausnarketa egitea da gakoa, eta desiratutako hori lortzera begira zein estrategia jarri behar diren abian eztabaidatzea, beti ere, proiektuen bideragarritasunean oinarritua. Hausnarketa honetatik etorkizunera begirako lan ildoak eztabaidatu nahi dira, ondoren jaso diren proposamenak Udalari helarazteko, ondoren honek azter ditzan.

## Herritarren parte hartzeak eta lankidetzak garrantzia berezia izango du kudeaketan ezta?

Kulturaren gaiak duen garrantzia medio eta errealitatearen diagnostiko partekatu bat egin ahal izateko eta, ondoren, etorkizuneko lan ildoan inguruan


eztabaidatzeko, ezinbestekoa izango da zumaiarren parte-hartzea. Horrela, parte-hartze hori bideratu ahal izateko bilera konkretuak egiteaz gainera, udal web orrian atal berezi bat jarriko da abian, herritarren ekarpenak jaso ahal izateko.

## Zertan oinarrituko zarete parte hartzea sustatzeko?

Parte-hartzea sustatzeko askotariko estrategiak aurreikusten dira. Alde batetik, bilerak hasi aurretik inkesta bat egingo da, eta inkesta bera ere parte hartzeko modu bat izango da. Bestalde, bileren formatuaz gainera, web orriaren bidez iradokizunak helarazteko sistema bat ere jarriko da abian. Azkenik, parte-hartze prozesuaren inguruko informazio eguneratua eskaintzen saiatuko gara, Udaleko web orrian horretarako jarriko den atalaren bidez eta prentsara bidalitako albisteen bidez.

**e**l Ayuntamiento de Zumaia, gracias al convenio de colaboración pactado con la Diputación Foral de Gipuzkoa, promoverá el proceso de participación 'Kultura Zumaian 2020'. El objetivo de este proyecto será debatir y reflexionar sobre la realidad cultural del municipio y analizar cómo nos gustaría que fuera el ámbito de la cultura en el año 2020. De esta forma, se pretende tratar y perfilar, a nivel municipal y junto con los agentes culturales, las líneas de trabajo del futuro en el ámbito de la Cultura.

## Jadarreko bigarren faseko obraren kontratazioa abian da



**E**rrepidearen eta mendi-magalaren artean horma bat eraikiko da eta bi hirigune egokituko dituzte horri esker, pasealeku-behatokia bata eta egoteko gunea bestea.

Udalak abian du Jadarre auzoaren berrurbanizatzeko lanen 2. faseko obraren kontratazioarako prozesura eta dagoeneko hainbat eskaintza ditu esku artean. Exekuzio honen baitan, besteen artean, goiko plazatxoak eraberrituko da. Andoni Etxaniz Hirigintza zinegotziaren esanetan, “gaur egunean anbulantzia edota suhiltzaileen kamioiak ezin dira sartu bertara eta esku-hartze honekin bide berri bat irekiko da zerbitzu horiek plazara sarbidea izan dezaten”.

Auzoak dituen bestelako irisgarritasun arazoei ere helduko diete exekuzio

hauekin. “Errepidearen ondoko oinezko eta bizikletaren ibilbideei jarraipena emango zaio eta errepidearen eta mendi-magalaren artean horma bat eraikiko da. Horma horrek, Narruondo ibaiarekiko paralelo bi hirigune sortzea ahalbidetuko du, pasealeku-behatoki bat eta egoteko gunea bat. Altuen gelditzen den eremuan, auzoaren goiko zonaldera irisgarritasuna hobetzeko igogailu bat eraikiko da eta lan-eremuan dauden azpiegiturak hobetuko dira”.

Bigarren fase hau lehendabizikoaren atzetik dator. Aurreneko fasean, igogailua jarri zen auzoan eta era berean, auzoaren zati bat eraberritu eta espaloiak zabaldu ziren. Argiteria publikoaren instalazioak, berriz, lurpetik pasa ziren. Etxanizek azaldu duenez,

“auzoak behar zuen berrurbanizazioa garrantzitsua zen eta horregatik egingo dira lanak faseka. Bigarren fase honekin egin beharreko lanen zati handiena eginga geratuko da”. Hirugarren fasean, Jadarre auzoaren goiko aldean egingo dira esku-hartzeak nagusiki.

### Miloi bat euroko aurrekontua

Bigarren faseko lanek milioi bat euroko aurrekontua izango dute eta exekuzio-epea, berriz, 7 hilabetekoa izango da. Ondo bidean, lanak azaroan hasiak egon daitezkeela aurreikusten dute Udaletik. “Orain artean, eremu honetako lurren gestioan aritu da Udala eta bertako lur-jabe guztiekin akordioetara iritsi da. Dagoeneko hitzarmen horiek sinatuta daude eta horren ondoren sinatu dira baldintza pleguak lanen kontratazioa aurrera eraman ahal izateko”.

**Y**a está abierto el procedimiento para la contratación de la segunda fase del proyecto de reurbanización del barrio Jadarre y el Ayuntamiento ya tiene a su disposición varias propuestas recogidas durante el periodo de licitación. Tal y como explica el concejal de Urbanismo

Andoni Etxaniz, “con estas obras de reurbanización de la segunda fase el Ayuntamiento pretende por un lado prolongar el paseo peatonal y de bicicleta. Del mismo modo, se construirá un muro entre la carretera y la ladera, que permitirá configurar dos espacios urbanos de estancia y paseo-mirador

en paralelo al río Narruondo”. En el espacio situado más arriba, se dotará de un acceso rodado de tal manera que permita el acceso de ambulancias y vehículos de mantenimiento. Al igual, se construirá un ascensor urbano para acceder a las viviendas que se sitúan en las zonas más elevadas del barrio.



**e**n junio hicimos una rueda de prensa junto a otros concejales de la oposición en la que denunciábamos la situación económica a la que la gestión de EA y la izquierda abertzale han llevado al ayuntamiento. El gobierno municipal nos respondió, como suele hacerlo, acusándonos públicamente de “mentir”, de “manipular” y de “actuar con malicia”.

*Sin embargo, tres meses después nos han presentado una propuesta para el próximo Pleno en la que reducen en 1.000.000 de euros determinadas partidas. De modo que, ¿quién mentía?. Se minoran subvenciones, contratos (como los de limpieza), fiestas, etc El resto los quitan de suprimir el proyecto del Paseo a Narrondo y el merendero de Artadi.*

*Al mismo tiempo plantean, sin embargo, aumentar el dinero para la Alhóndiga (que se ha encarecido en obra y necesita -¿no lo habían pensado antes?- de instalaciones.*

*Pero seguimos teniendo un problema: esos 700.000 euros de disminución vienen a cuadrar, más o menos, el desfase entre gasto e ingreso corriente previsto 2010. Pero de esa modificación difícilmente se puede lograr dinero para nada, ya que ese gasto, ya antes, se sustentaba en la nada.*

*Al mismo tiempo pretenden que aprobemos por tercera vez, un incremento de plantilla laboral. Es decir, vuelven a incrementar el gasto estructural en personal contra lo que intentan hacer todas las administraciones del mundo mundial.*

*Y, por si fuera poco, seguimos careciendo de un documento en el que se nos aclare cual es la foto real de la economía municipal. Tenemos presupuestos prorrogados, tenemos incorporaciones, tenemos modificaciones –una tras otra- hacia arriba, hacia abajo... ¡Pero no tenemos un documento que cuadre ingresos y gastos! Ni Plan Económico Financiero. Lo que tenemos es una propuesta de incremento de gasto (otra) para contratar a alguien que lo haga a cambio de unos miles de euros...*

*Por supuesto, volverán a decir que mentimos.*



**e**z da askotan gertatzen, eta bereziki azpimarratu nahiko genuke: uztailleko ohiko plenoan, pleno egitea lortu genuen; izan ere, plenora eraman ziren puntu guzti-guztiak, hamahiru, onartu zituen Udalbatzak. Udal Gobernu gutxiengoan egongo da, baina bere lanak eta gestioak gehiengoaren babesa du.

Puntu horietatik, bi hirigintzakoak ziren, bi hitzarmen-bata, Foru Aldundiarekin, N-634 errepidea zena Zumaia barrutik pasatzen den tartean Udalaren esku uzteko, eta Aldundiak 714.000 € emango dizkio Udalari etorkizunean egin beharko diren lanen ordainetan; bestea, Ardantzabideko babes ofizialeko etxebizitzak non egingo diren zehazteko; ordenazio berri honek Udalaren partzelari 150.000 €-ko gainbalioa emango dio, eta diru hori ez da gaizki etorriko Zumaiaiko herriak behar duen frontoia egiteko.

Ordenantza bat onartuta, lokal komertzialetan etxebizitza tasatuak egiteko aukera zabaldu genuen. Udalerrian lokal komertzial asko hutsik eta beste ezertarako erabiltzeko aukera handirik gabe daude, eta horiei soluzioa emateko, ordenantza honen bidez, Zumaian 45-50 etxebizitza tasatu egiteko aukera izango da.

Diru kontuei dagokienez, garapen bidean dauden herrietan lankidetzaren proiektuak diruz laguntzeko oinarriak berriro genituen, Euskal Fondoari diru laguntza egokiagoak bideratzeko; eta ordenantza fiskalak aldatu genituen, herri garraioaren prezioak egokitzeko, AUZOBUSA martxan dagoen seinale.

Kontu politikoak ere izan genituen. 350 zumaiarrek sinatuta, BAI UDALBILTZARI! BAI EUSKAL HERRIARI! babes taldeak aurkezturiko mozioa onartu genuen, auzi honen bidegabekeria eta izaera politikoa salatuz. Azken berriei begiratuta (ETAren su-etena, aukera politiko berriak zabaltea...), itxaropentsu egoteko nahikoa arrazoi badago eta lanean jarraituko du Ezker Abertzaleak; tamalez, ordea, badirudi Estatu espainiarra eta alderdi unionistak, lehengo eta betiko jarreretan tematuta daude. Baina sasi guztien gainetik, herri hau aurrera doa.



**a**londegia kultur etxe bihurtzea. Hori zen orain 11 urte EA-k aurkeztu zuen udal programaren ardatzetako bat. Ezker Abertzalearekin 3 urte udal gobernuan daramatzagun honetan, laster errealitate bihurtzeko aukera izango dugu zumaia guztiok. Lanek, jarduera txukuna daramate aurrera eta datozen hilabeteak eraikin barruko lanetan ariko dira. Foronda eraikinarekin zer? Galdera horiei zein beste batzuei, herritar guztiok eman behar diogu erantzuna, eta horretarako udazkenean Kudeatuz programaren baitan, kultur plan bat egiteko asmoa dugu.

Alondegitik ez urrun moila daukagu. Hor ere trafikoa, bidegorria eta oinezkoen pasabidea berbideratzeko lanak martxa onean doaz. Txomin Agirre, Mendaro Marinela eta batez ere Gernikako zubiaren irisgarritasuna hobetzeko lanek, herritar askok aspaldian itxaron dituzten asmoei erantzuten diete. Dударik ez dago bere garaian egin zen zubiak onurak ekarri zituela (nahiz eta asko ezkor agertu eta bertatik inoiz pasako ez zirela oihukatu) eta dudarik ere ez, gaur egungo lanek onura horiei onura gehiago ekarriko dizkiela.

Ale honetako udal aldezkarik honetan ezin pasa, egoera orokorrari so egin gabe.

Aldi politiko berri eta itxaropentsu baten atarian gaudela iruditzen zaigu. Giza eskubideak errespetatuko dituen mugimendu independentista handi bat sortu liteke. Baina horretarako alde guztien inplikazioa behar da. Gure herrian hainbat urteetan gertatu diren giza eskubideen urraketak, ez dira gauetik egunera desagertzen. Prozesuak nahi baino luzeagoak izaten dira (horrela erakusten baitute nazioarteko beste prozesuek ere). Baina ezinbestean talde politiko eta sozial guztien inplikazioa behar da. Bakoitzari egokitzen zaion erantzukizunaren arabera jokatu behar da. Hori ez egitea, garai berri bati ateak ixtea da. Aurreko prozesuek ez zutela baliorik izan eta ez gaitzeen ezkortasunean erori. Ezta probokazioetan ere. Guk gureari ekin diezaiozun, prozesu honetara ahalik eta eragile gehien gonbidatuz eta inplikaturik, Euskal Herriak eta euskal herritarrok behar dugulako.



**u**rte askotan Zumaia etxeak eskailera batzuk igo osteko igogailua jarrita egin izan dira. Etxe askotan igogailuak berritzen ari dira eta etxe azpiko metro karratu batzuekin beheraino egin liteke, Udalarik metro horietaz jabetzeko aukera emango liokeen norma onartuz gero.

Irisgarritasunari buruz hitz egiten badugu puntu beltz asko daude gure herri honetan baina gaurko honetan bi azpimarratu nahiko genituzke, Santixoko hondartza eta tren geltokia. Bi kasu hauetan ez dirudi Udalaren esku bakarrik dauden irtenbideak baina Udalak lideratu beharko luke irtenbideak bilatzeko prozesua.

Tren geltokiaren sarrerak ez dirudi egokiena eta marra batzuk pintatzearekin ez da nahikoa; espaloi baten beharra dago eta baita igogailu baten beharra ere. Santixoko hondartzaren egoerari buruz ez dago asko azaldu beharrik, argi eta garbi ikusten da, datorren jendearekin ematen den zerbitzua ez dela egokia. Jaurlaritzako Kosta Zerbitzuarekin zein Getariako Udalarekin hitz egin behar dugu lehenbailehen egoera kaskar honi irtenbidea aurkitzeko.

*Durante muchos años las casas construidas en Zumaia se han realizado con un ascensor accesible después de unas escaleras. En muchas casas se está llevando el proceso de renovación del ascensor y en algunos casos con unos pocos metros cuadrados de los bajos se podría hacer hasta abajo, esto ya es posible gracias a norma específica en el Ayuntamiento que permitiera la expropiación por parte del Ayuntamiento de esos metros.*

*A la hora de hablar de accesibilidad hay dos puntos en Zumaia sobre los que los poderes públicos deberían de actuar desde hace tiempo, la playa de Santiago y la estación. En ambos casos la responsabilidad no es exclusiva del Ayuntamiento pero debería de liderar una solución.*

*La entrada a la estación no parece que se solucione pintando unas cuantas rayas. Hace falta una acera propia en condiciones y ascensores para llegar a los andenes. Sobre la situación en la playa de Santiago desde el punto de vista de la accesibilidad no hay mucho que decir, es evidente que el margen de mejora del conjunto de los servicios públicos es notorio. Habrá que hablar con el Servicio de Costas y con el Ayuntamiento de Getaria para una solución definitiva.*



**R**einiciamos una vez pasado el verano el último tramo de gestión municipal del actual mandato que finalizará en abril del 2011.

*Como ejecución mas importante en el año 2010, tenemos las obras del puente peatonal y su entorno financiadas a través del 2º plan Zapatero, lo que da una idea del paron municipal en materia inversora de creación de puestos de trabajo en el momento de crisis actual, tenemos un acumulado pendiente de ejecutar bastante importante que tendrán que poner en marcha quienes obtengan el voto de los vecin@s de Zumaia, que con el movimiento de siglas después de las diferentes rupturas en algunos partidos, el panorama es bastante complejo. Por nuestra parte trabajamos para que la candidatura que en su momento presentaremos a todos los votantes en general responda a una clarificación política y de gestión de acuerdo con nuestra trayectoria como partido ante la sociedad.*

*Una vez que se terminen las obras en el Paseo de Gernika, retomaremos el traslado de la Placa Homenaje en recuerdo de las Víctimas de Terrorismo a este lugar como más adecuado del que ocupa en la actualidad en el Paseo del Faro. Propuesta esta ya realizada el mismo día del acto de homenaje tanto al alcalde como a la Presidenta del departamento de Víctimas del Gobierno Vasco, como a los concejales de todos los partidos presentes en el acto y sobre todo a los familiares de los recordados, intentando en la manera que podamos, que sea un acto sin polémica de ningún tipo, sino de recuerdo y a la vez de condena de una violencia sin sentido, contraria a toda norma de convivencia y el respeto de los unos a los otros por muy diferentes que puedan ser nuestros planteamientos políticos.*

*Esperamos resultados antes de tomar postura, aunque ya es conocida la misma y fue tratada en el anterior nº de esta revista sobre todo en el tema de residuos urbanos, que a nuestro entender "parte de un planteamiento erróneo", el 5º contenedor y la recogida puerta a puerta no son contrapuestos, son dos formas diferentes de llevar a cabo una recogida selectiva y sobre todo sostenible en el ámbito económico que ambas necesitan de un tratamiento final del conjunto de residuos urbanos a los vertederos actuales. Y en cuanto a presupuestos participativos para 2011 esperamos propuestas reales y por tanto ejecutables en la situación actual*

## Uztailaren 29ko ohiko plenoa

**1.-** Urtarrilaren 28ko eta ekainaren 8ko bileren aktak onartu ziren.

**2.-** Aitor Leiza Alberdik Aralarreko zinegotzi kargua hartu zuen.

### 3.- Proposamena

**3.1.-** Onartu egin zen 'Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari', EAK eta Talde Mistoak aurkeztutako proposamena, Zumaian 350 sinadurak bermatutakoa. 11 zinegotzik alde bozkatu zuten (PNV 4, Talde Mistoa 3, Aralar-Alternatiba 2, EA 1 eta Pilar Etxabe). PSE-EEk aurka bozkatu zuen.

**3.2.-** Aldeko zortzi botorekin (EAJ 4, Aralar-Alternatiba 2, EA 1 eta Pilar Etxabe) onartu egin zen EAJ-PNVko udal-taldeak aurkeztutako proposamena 'Heldu zerbitzua bertan behera uztea' izenburupean. PSE-EEko bi zinegotziek aurka bozkatu zuten eta Talde Mistoak abstentzioa.

### 4.- Ogasuna:

**4.1.-** 2009ko Kontu Orokorra aho batez onartu zen.

**4.2.-** Ordenantza fiskalen aldaketa, herri garraio zerbitzu berria ezartzearena, ontzat eman zen aldeko 9 botorekin (Talde Mistoa 3, Aralar-Alternatiba 2, PSE-EE 2, EA 1, eta Pilar Etxabe 1). EAJ abstentitu egin zen.

**4.3.-** Aho batez onartu zen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zerga informazioa lagatzeari buruzko hitzarmena.

### 5- Hirigintza:

**5.1.-** AAldeko zortzi

botorekin (Talde Mistoa 3, Aralar-Alternatiba 2, PSE-EE 2 eta EA 1) onartutzat eman zen 07 HA Ardantzabiden arauetako 34.3 artikulua aplikatzeko hitzarmena. EAJk aurka bozkatu zuen eta Pilar Etxabe abstentitu egin zen.

**5.2.-** Aho batez onartu zen Zumaiaiko N-634 Zaharreko zeharbidetaren jabetza Zumaiaiko Udalarri eskualdatzeko hitzarmena.

**5.3.-** Etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen ordenantza onartu egin zen. Bederatzik alde bozkatu zuten (Talde Mistoa 3, Aralar-Alternatiba 2, PSE-EE 2, EA 1 eta Pilar Etxabe 1). EAJ abstentitu egin zen.

**5.4.-** 01 HA 'Alde Zaharreko 01.4 EU 'Ardantzabide' xehetasun-azterketari behin betiko onarpena bidezko egin zen aldeko 9 botorekin. EAJ abstentitu egin zen.

**5.5.-** AU 07-Ardantzabide xehetasun-azterketaren aldaketaren behin betiko onarpena ere bidezko egin zen aldeko 12 botorekin. Pilar Etxabe abstentitu egin zen.

### 6.- Gizarte Zerbitzuak:

**6.1.-** Aldeko zortzi botorekin (Talde Mistoa 3, Aralar-Alternatiba 2, PSE-EE 2, EA 1) onartu zen 2010. urterako garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzako programak, gizarte sentsibilizazioak eta ekintza humanitariokoak diruz laguntzeko proposamena. EAJko lau zinegotziek eta Pilar Etxabe zinegotziak kontra bozkatu zuten.

